

Hizkuntza-aktibazioaren bidean: PROZESUA

HIZKUNTZA-AKTIBAZIOAZ

Herritarrak aktibatzea bultzatu eta erraztu nahi duen mugimenduaz ari gara, **hizkuntza errealitatean eragiteko asmoz abiatzen den prozesuaz**, alegia.

- **Egoera eraldatzea helburu.** Prozesu horrek elkarlan irekia eta malgua bilatzen du, ekintza batzuei ekiteko.
- **Lineala ez den prozesua.** Olatuen parekoa da aktibazio-prozesua; hau da, goraldiak eta apalaldiak ditu. Pazientziak eta epe luzeko ikuspegiak lan egitea eskatzen du hizkuntza-aktibazioak.

Herritarren aktibazioa lortu duten tokian tokiko hainbat esperientzia aztertu dugu, euskararekin lotuak eta beste arlo batzuetakoak. Hala, hizkuntza-aktibaziorako egin litekeen prozesua proposatu dugu, eta zaindu beharreko gakoak identifikatu ditugu.

Emaitza ez da ziurra, ordea, herritarren aktibazioa ez baita metodo egoki bat jarraitzearen ondorio zuzena. Seguru asko, hemen proposatzen diren guztiak kontuan izanda ere, horiekin batera planifikagarriak ez diren beste baldintza batzuk gertatu behar dira desiraturiko emaitzak lortu ahal izateko. Dena den, proposamen honek jaso dezake kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien eta zereginen irudikapen oso bat.

Bideak egingo gaitu, egiten duguna garelako

1. Atariko lanak EKIMENA ADOSTEKO AURREPROZESUA

Nahi, behar, kezka, asmo, gogo, sinismen, konbentzimendu, begirada, energia...
PARTEKATU

Osatu, egitasmo zehaztugabea
Zer egin?
Zergatik?
Zertarako?

• Pertsona, eragile eta erakunde estrategikoei zehaztu (sinergiak)

- Egoeraren irakurketa dokumentatua
- Ekiteko borondateak
- Baliabideen aurreikuspena

Indarguneak?
Ahulguneak?

• Talde Eragile berria eta anitza: askotariko elkarlana, inpaktu zabala

- Egitasmoa adostu
- Antolaketa eta lantaldeak
- Lidergo/protagonismo banatuak: elkarren aitortza eta denon ahotsa erabakietan (oreka).

- Harremanak
- Komunikazioa
- Baliabideak, azpiegitura
- ...

(Talde-prozesu zaindua eta kontzientea)

Solasaldiak, kafeak, bilerak...

- Entzuteko, proposatzeko eta komunikatzeko moduak zaindu
- Hartu eta eman irekitasunez: ideiak integratuz eta gogoia elikatuz
- Modu malguan antolatu: konpromiso maila ezberdinak on-hartuz

2. Aurrelanketa KOMUNIKAZIO ETA MOBILIZAZIO ESTRATEGIA DISEINATzea

Saio eta tailer monografikoak

A
Beste esperientzien berri izan: **FORMAZIOA**

B
Sareen mapeoa

- Sarearen egitura irudikatu
- Talde bakoitzaren topaleku naturalak identifikatu
- Nor egotea nahi dugu?
- Xede taldeak zehaztu

C
Sormena pizteko saioak

- Mezuak / Hartzaileen araberakoak
- Diskurtsoa: gidoia, adierazpena, argudiategia
- Irudia, leloak, ...
- Ekimena[k]

Emozioak mugitzeko Bizipen gogoangarriak, ederrak

[Solosaldiak bultzatu, debate soziala piztu]

Sustrai sakonak jarri: barne lanketa sendoa

Oreka, konfiantza eta ilusio giroan sakondu

4. Baloratzea EBALUAKETA ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Atsedenerako eta gogoetarako tartera

Eskertza mezua helarazi

• Bizipena, inpaktua, emaitzak baloratzeko informazioa aztertu

• Barne balorazio zintzoa

- Zer ondo?
- Zer hobetzeko?
- Zer sumatu dugu faltan?
- ...

Ondorioen txostentxoak

Mobilizatu dugun horretatik...
• Zer egonean?
• Zer aktibo?
• Zelan elikatuko dugu sarea?

- Ekimen berrietarako irakaspenak identifikatu
- Hizkuntza-aktibazioaren bidean, non gaude orain? Zein hurrengo urratsa?

Emaitzak gorabehera, ahalegina elkarrekin ospatu!!

3. Ekitea

EKIMENA MARTXAN JARTzea ETA HEDATzea



Ardurak eta zereginak orekatu, txandakatu

Giroa eta lanaren fruitua gozatu!